



BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2024

Bilbao Observatorio

LABURPENEA

2024ko lehenengo seihilekoko jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren adierazleak hobekuntza-bidean profil kontinuista aurreikusi zuten pronostikoak berresten ari dira. Arrisku-faktoreen artean inflazioa dago oraindik, % 2tik gorako mailetan jarraitzen baitu, eta, batez ere, 2023an erregistratutakoa baino txikiagoa den eta, egiaz, zerbitzuen osagaien garrantzi txikiagoa duen murrizketa-ibilbidearekin. Hori gorabehera, lehenengo seihilekoan erregistratzen ari diren jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren emaitzei esker bi jarduketa mota eman dira: alde batetik, urteko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenen gorako berrikuspen txikia, orokor samarra, eta, bestetik, interes-tasen nolabaiteko murrizketari ekin izana eta, ondorioz, finantzaketa eskuratzeko baldintzak egonkortzea eta kostua murriztea.

Lehenengo seihilekoak hobekuntza leuneko profil kontinuista berresten du

Testuinguru horretan, Nazioarteko Diru Funtsak (2024ko uztaila) 2024rako munduko hazkunde ekonomikoaren (+% 3,2) eta 2025rako hobekuntzaren (hamarren bat, +% 3,3) aurreikuspenei eutsi die. Aurreikuspen berriak ekonomia aurreratuei buruzko pronostikoei eusten die; hala, Euroguneak dinamismo txikiagoa du AEBen aldean, baina Espainiarako¹ (+% 2,4, +5 hamarren) eta Frantziarako (+% 0,9, +2 hamarren) aurreikuspenak, adibidez, hobetu egin dira. Gainera, erakundeak gorantz berrikusi ditu ekonomia emergenteak eta garatzeko bidean daudenentzako aurreikuspenak (+% 4,3, hamarren bat gehiago), bereziki Txinarako aurreikuspenak (+5,0%, +4 hamarren). Adierazi du betetze-maila barne-konsumoa sendotzearen eta nazioarteko merkataritza-fluxuen araberakoa izango dela, gatazka beliko eta geopolitikoen ondorioz sortutako tentsioen arintzearekin batera.

Munduko ekonomia % 3,2 haziko den itxaropena dago, inflazioa gutxitzearekin lotuta.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren (Eusko Jaurlaritza) ustez, EAEko ekonomia² % 1,9 eta % 2,1 haziko da 2024an eta 2025ean, eta 2023an erregistratutako hazkunde sendotuko du (+% 1,8). Halaber, ekitaldian zehar hobetuko den sekuentzia bat izango du oinarri (+% 1,7, +% 1,9, +% 2,0 eta +% 2,1, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera, hurrenez hurren). Eskuragarri dagoen informazioak (Eustat) aurreikuspen horiek berretsiko lituzke, urte artean % 1,7 eta % 1,8 (aurrerapena) hazi baita lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan.

EAEko ekonomia % 1,9 haziko da, 2023an baino hamarren bat gehiago.

Jardun ekonomikoaren adierazleekin zerikusi handiena duten alderdiez gain, lan-merkatuari buruzkoak ere nabarmendu behar dira, aurreikuspen horien sendotasuna berresten baitute. Bigarren hiruhilekoan (ekaina), Bilbok 194.949 pertsona izan zituen gizarte-segurantzaren afiliatuta. Zifra hori urteko baliorik handiena da, eta hobekuntza nabarmena izan du hiruhileko artean (+% 1,7 eta 3.246 afiliazio gehiago, martxoarekin alderatuta) eta urte artean (+% 5,4 eta 9.983 afiliazio gehiago). Azken batean, afiliazioaren hileko ibilbidea bost hilabetekoa izan da, zeintzuetan 191.000 baino afiliazio gehiago dauden, eta horietako hirutan (apiriletik ekainera) 194.000 baino gehiago. Zifra horiek hiribilduan enplegua sortzeko gaitasuna berresten dute.

Bilbo ia 195.000 afiliatortara heldu da...

Kontratazio berriaren bilakaera dinamismo horren isla da; izan ere, Bilbon 28.626 kontratu berri egin dira bigarren hiruhilekoan, eta hiruhileko arteko gorakada handia egon da (+% 7,1 eta 1.908 kontratu gehiago). Seihilekoaren balantzea 55.344 kontratukoa da, eta zifra horrek urte arteko gorakada itzela dakar (+% 3,5 eta 1.865 kontratu gehiago). Gizonek emakumeek baino jardun hobea dute (+% 6,7 bata eta +% 0,3 besteak), eta 16-24 urte bitarteko taldea (+% 16,1) eta 45 urte eta gehiagokoen taldea (+ %3,6) gehiago hazi dira. Batez ere, zerbitzu-jardueretan egon da hazkunde (+% 5,5), eta horrek gainerako jardueren atzerakada konpentsatu du. Gainera, heren bat baino gehiago kontratu mugagabeak dira (% 35,6), eta ratio hori 2023ko lehenengo seihilekoan erregistratutakoa (% 39,2) baino pixka bat txikiagoa da.

...eta 55.344 kontratu berri egin dira (lehenengo seihilekoa), % 35,6 mugagabeak

¹ +% 2,3ko aurreikuspenak (Espainiako Bankua), +% 2,4koa (AIRef) eta +% 2,5koa (BBVA Research eta Funcas), esaterako.

² Beste erakunde batzuek % 1,6ra jaitsi dute (AIRef) eta beste batzuek +% 2,3ra (BBVA Research).

Erregistratutako langabezia-tasak berriz egin du behera, eta, 2024ko ekainean, 20.981 pertsona izan dira. Horrek hiru hileko arteko beherakada nabarmena erakutsi du (-% 4,5 eta 982 pertsona langabe gutxiago), baina pixka bat igo da aurreko urtearekin alderatuta (+% 1,6 eta 323 pertsona gehiago). Zifra oso garrantzitsua da, zeren eta, 2023ko maiatzetik uztaiera bitartean erregistratutakoekin batera, Bilbon 21.000 langabe baino gutxiago dituzten bakarrak dira (zifra hori ez da 2009az geroztik lortu; izan ere, 20.437 izan ziren ekainean).

20.981 pertsona erregistratu dira langabezian...

...erregistrorik txikienetakoa 2009tik

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren emaitzen arabera, 2024ko bigarren hiru hilekoan hiribilduak 162,6 mila landun ditu. Beraz, zenbatetsitako enplegu-tasa % 53,44koa da, eta langabezia-tasa, aldiz, % 9,35koa.

% 53,4ko enplegu-tasa eta % 9,4ko langabezia-tasa.

Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentek moteltze-profilarekin (-% 1,4 eta -% 2,1, prezio arruntetan eta konstanteetan) hasi ziren 2024. urtean (lehenengo hiru hilekoa). Emaitza horiek sektoreak EAEn izandako bilakaerarekin³ lerrotatuta daude (-% 2,1, prezio konstanteetan). Hori handizkako merkataritzaren segmentuaren jardun txarragoaren ondorio da (-% 4,9), bai eta txikizkako segmentuaren atzerakada txikiarena ere (-% 0,2), eta hori ezin da ibilgailuen salmenta eta konponketaren gorakadarekin konpentsatu (+% 9,6). Guztiarekin ere, sektoreko enpleguak hobetzen jarraitzen du (+% 2,7).

Merkataritzako salmentak negatiboan hasi zuten urtea (-% 1,4 eta -% 2,1, prezio arruntetan eta konstanteetan)

Bestalde, Bizkaiko txikizkako merkataritzaren salmentek jarduerari eutsita hasi zuten urtea (+% 2,7 eta +% 0,0, urte arteko tasan, prezio arruntetan eta konstanteetan), elikagaien segmentua izanda euskarri (+% 5,0 eta +% 0,8, prezio arruntetan eta konstanteetan), eta gainerako produktueta emaitza lauagoa izan zen (+% 0,7 eta -% 0,6, hurrenez hurren).

... baina txikizkako merkataritza hazi egin zen (+% 2,7 eta +% 0,0, prezio arruntetan eta konstanteetan)

Halaber, Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmenten hazkundera moteldu egin da urteko lehenengo eta bigarren hiru hilekoetan, prezio arruntetan (+% 4,4 eta +% 2,5) eta konstanteetan (-% 0,2 eta -% 1,1). Bilakaera partekatua da, baina elikagaien segmentuak dinamismo handiagoa du (+% 3,7 eta -% 0,7, prezio arruntetan eta konstanteetan), elikagaiak ez direnen aldean (+% 0,1 eta -% 1,8, hurrenez hurren). Bestalde, sektoreko enpleguak hazten jarraitzen du (+% 0,4), baina aurreko hiru hilekoetan baino erritmo geldoagoan (+% 1,9, +% 2,7, +% 1,9 eta +% 0,4, 2023ko hirugarren hiru hilekotik).

...bigarren hiru hilekoan, gune handiek salmenten moteltzea berretsi dute (+% 2,5 eta -% 1,1, prezio arruntetan eta konstanteetan)

Urteko bigarren hiru hilekoan, Bizkaian 3.395 ibilgailu berri matrikulatu ziren; zifra hori aurreko hiru hilekoan baino hobetagoa da (+% 3,0), baina ez urte arteko tasan (-% 3,7). Lortutako emaitzan eragina izan du enpresako ibilgailuen eta bestelako segmentuaren portaera negatiboak (-% 23,6), eta hori ez da partikularren kanaleko salmenten dinamismoarekin konpentsatu (+% 7,9).

Ibilgailuen matrikulazioak profil anibalentea du: hiru hileko arteko hobekuntza (+% 3,0), urte arteko atzerakadaren aldean (-% 3,7).

Martxotik ekainera bitartean (aldi homogenea da 2023 eta 2024rako, bi kasuetan Aste Santua baitago barne), hiribilduko hotel-jarduera nolabait gelditu da, eta urte arteko beherakada txikia izan du bidaiarien (-% 0,6 eta -2.199 bidaiari) eta ostatu-gauen bolumenean (-% 0,6 eta -4.353 ostatu-gau). Izan ere, sei hilekoko bilakaerak (urtarriletik ekainera) nahiko antzeko emaitzak erakusten ditu (-% 0,5 eta -% 1,4, urte arteko tasan, bidaiari eta ostatu-gauetarako), eta hori nazioko segmentuan (-% 4,0 eta -% 6,8) nazioartekoaren aldean (+% 3,5 eta +% 3,7) izandako galeraren ondorio da. Azken batean, udako emaitzak erabakigarriak izango dira emaitza hori leheneratzeko eta hazkundera-bidean jarraituko duen urteko balantzea lortu ahal izateko.

Lehenengo sei hilekoko hotel-jarduera gelditu egin da (-% 0,5 eta -% 1,4, urte arteko tasan, bidaiari eta ostatu-gauetarako).

Bilboko aireportuak bidaiari-kopuruaren gorakada berri batekin itxi du urteko bigarren hiru hilekoa (+% 9,1, urte arteko tasan), guztira 1.861.280 pertsona garraiatu baitira. Hori 2023ko hirugarren hiru hilekotik izandako bigarren zifrarik handiena da. Gainera,

Loiuk dinamismo handia mantendu du urteko bigarren hiru hilekoan (+% 9,1)

³ Ez dago lurralde historikoen arabera sektore-bereizketarik; EAeko informazioa nahikoa argigarria izan daiteke Bizkairako.

garrantzizkoa da azpimarratzea, bilakaera positiboa bada ere, nazioarteko hegaldien segmentuak erregistratutako dinamismoak aiseki gainditzen duela nazionalen jarduna (+% 17,4 eta +% 3,5, urte arteko tasan, hurrenez hurren).

Era berean, bigarren hiruhilekoan, Bilboko portuaren jarduera nabarmen igo da (+% 9,9), guztira 9,6 milioi tona kudeatuta, eta zifra horrek 2018ko bigarren eta laugarren hiruhilekoan erregistratutako gehieneko balioak gainditu ditu. Lehenengo sei hilekoaren balantzeak Bilboko portuko jardueraren gorakada berresten du (+% 9,7), guztira 18,1 milioi tona kudeatuta (+1,6 milioi tona 2023ren aldean).

Bizkaiko industria-ekoizpenak dezelerazio-profila baieztatu du, bigarren hiruhilekoan erregistratutako atzerakadagatik (-% 3,0, urte arteko tasan). Atzerakada hori ezin da lehenengo hiruhilekoan erregistratutako hobekuntzarekin konpentsatu (+% 0,6); izan ere, lehen sei hilabeteetako balantzea negatiboa izan da (-% 1,3).

Bizkaiko industria-jarduera gelditzen doa (urtarrila-ekaina, -% 1,3)

Bizkaiko merkatuko zerbitzuen salmentek dinamismo handia zuten 2024 hasieran (+% 7,3 eta +% 3,8, urte arteko tasan, prezio arruntetan eta konstanteetan), eta hobekuntza-profil jarraitua berretsi zuten. Eraitza hori sektoreko enpleguaren adierazleak partekatzen du (+% 0,8).

Merkatuko zerbitzuen salmentak gehitu egin ziren lehenengo hiruhilekoan (+% 7,3 eta +% 3,8, prezio arruntetan eta konstanteetan)

Bizkaiko BPGd-a % 1,7 hazi zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilekoen hobekuntza-sekuentzia sendotu zuen (+% 1,4, +% 1,3 eta +% 1,6, 2023ko bigarren hiruhilekotik laugarrenera). Dinamismo hori 499.018 lanpostutan oinarritu da (lanaldi osoaren baliokidetzan), hau da, % 1,9ko gehikuntza eta 2023ko lehenengo hiruhilekoan baino 9.248 lanpostu gehiago, eta, gainera, enplegu-kopururik handiena 2008ko hirugarren hiruhilekotik (502.249 lanpostu).

Bizkaiko BPGd-a % 1,7 hazi zen 2024an, (ia) milioi erdi lanpostuk sustatuta

EAEko 2024ko bigarren hiruhilekoaren aurrerapen-datuek adierazi dute (Bizkaiarentzat adierazgarriak dira) BPGd-a hazi egin dela (+% 0,4 eta +% 1,8 hiruhileko arteko eta urte arteko tasan), bai eta enplegua ere (+% 0,6 eta +% 1,8 hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan).

Laburbilduz: Bizkaiko eta Bilboko jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren datuak urteko lehenengo sei hilekoaren balantze positiboa eraikiz doaz, baina ñabardurekin. Izan ere, lan-merkatuari buruzko adierazle guztiak oso positiboak dira, afiliazioaren gorakadak, erregistratutako langabezia-tasaren jaitsierak edo kontratu berrien sekuentziak berresten duten bezala, bai eta enplegu-indize sektorialeak ere, hazkunde-profila baitute.

2024ko lehenengo zatiak enpleguaren irimotasuna berresten du

Hala ere, adostasun txikiagoa dago jarduera ekonomikoaren emaitzetan. Horrekin lotuta, industria, merkataritza, turismoa eta kanpoko jarduera geldituta egongo liriteke (gehikuntza txikiagoa edo beherapena) merkatuko zerbitzuen eta garraioen dinamismoaren aldean, eta, oro har, Bizkaiko BPGd-aren hazkundearen aldean (lehenengo hiruhilekoa), guztiz positiboa izan baita.

Ondorioz, urteko bigarren zatirako erronkak honako hauek dira: industria-jardueraren erritmoa berreskuratzea, merkatuko zerbitzuen dinamismoarekin jarraitzea eta kontsumoari eustea (txikizkako merkataritza, beste osagai batzuen artean). Hori guztia, interes-tasak jaisteko estrategia berretsiko duen prezioen hazkundearen behin betiko murrizketa finkatuak baldintzatuta.

Bigarren zatiak industria-jardueraren hobekuntza eta barne-kontsumoaren mantentzea berretsi beharko lituzke.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

Nazioarteko Diru Funtsak⁴ munduko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenei eusten die (+% 3,2 eta +% 3,3, 2024 eta 2025rako), eta honako hau adierazi du: *“oro har, hazkunde ekonomikoa egonkor mantentzea aurreikusten da, nahiz eta inflazio iraunkorrak diru-politikaren normalizazioa zailduko lukeen eta interes-tasa altuagoak izango lituzkeen luzaragoan”*. Hala, proiektzioak ia aldaketarik gabe mantendu dira apirilaren aldean (hamarren bat baino ez da hobetu 2025erako aurreikuspena). Hala ere, xehetasunetan sartuz gero, ezberdintasun batzuk ikusten dira.

Munduko ekonomia
% 3,2 haziko da 2024an

Ekonomia aurreratuen artean, % 1,7 eta % 1,8ko hazkundera proiektatu da 2024 eta 2025erako; AEBn bultzada da nabari (+% 2,6 eta +% 1,9) eta Eurogunean makaltasuna (+% 0,9 eta +% 1,5), honako herrialde hauen ahuleziak oztopatua: Alemania (+% 0,2 eta +% 1,3), Frantzia (+% 0,9 eta +% 1,3) eta Italia (+% 0,7 eta +% 0,9). Alabaina, Espainiaren dinamismoa dugu (+% 2,4 eta +% 2,1), Euroguneko batez bestekoaren bikoitza baino gehiago haziko litzatekeelako. Dena den, erakundeak honako hau adierazi du: *“eurogunean, badirudi jarduerak minimoa jo duela, eta aipagarriak dira zerbitzuen bultzada eta, esportazio garbietan, aurreikusitakoa baino gorakada handiagoa urteko lehenengo seihilekoan”*. Horrek 2024rako gorako berrikuspen txikia justifikatuko zukeen (hamarren bat gehiago).

Bestalde, ekonomia emergenteek eta garatzen ari direnek hazkundera indartuko lukete (+% 4,3 2024 eta 2025erako), Asiako jardueraren gorakadak sustatua, bereziki, Txinakoak⁵ (+% 5,0 eta +% 4,5) eta Indiakoak (+% 7,0 eta +% 6,5). Brasilera (+% 2,1 eta +% 2,4) eta Errusiarako +% 3,2 eta +% 1,5) aurreikuspenak, aldiz, mantendu edo pixka bat jaitsi dira.

Hazkunde ekonomikoan (BPGd)... (e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024ko apirila		2024ko uztaila	
	2024	2025	2024	2025
MUNDUKO BPGd-a	3,2	3,2	3,2	3,3
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,8	1,7	1,8
Ameriketako Estatu Batuak	2,7	1,9	2,6	1,9
Eurogunea	0,8	1,5	0,9	1,5
Alemania	0,2	1,3	0,2	1,3
Frantzia	0,7	1,4	0,9	1,3
Italia	0,7	0,7	0,7	0,9
Espainia	1,9	2,1	2,4	2,1
Emergenteak eta garatzen ari direnak	4,2	4,2	4,3	4,3
Txina	4,6	4,1	5,0	4,5
India	6,8	6,5	7,0	6,5
Brasil	2,2	2,1	2,1	2,4
Errusia	3,2	1,8	3,2	1,5

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

⁴ Munduko ekonomiaren aurreikuspenen eguneraketa (2024ko uztaila).

⁵ *“Lehenengo hiruhilekoan kontsumo pribatuak izandako gorakadaren eta esportazioek izandako indarraren ondorioz, nagusiki, baina Txinako ekonomia pixkanaka desazeleratzen ari dela ikusi da biztanleria zahartuz doalako, eta produktibitatearen hazkundera motelduz”* (FMI)

Lehenengo seihilekoaren balantzeak Europako eta Espainiako etxekoen konfiantza⁶ hobera joan dela erakusten du, pixkanaka-pixkanaka ezkortasuna murrizten ari baita, eta azken hamar hiruhilekoetako emaitzarik hobereena nabaritu dute (-13,3 eta -14,4). Konfiantza-indize guztiak hobetu dira, eta ia baikorrak dira etxeko ekonomiaren bilakaerari dagokionez (-3,1 eta -1,4), baina ezkortasuna da nagusi oraindik egoera ekonomiko orokorraren gainean (-23,1 eta -19,3); izan ere, Europako etxekoek txarren baloratutako adierazlea da, baina ez espainiarrek, eresketa handiak egiteko itxaropenen inguruko balorazio txarragoa egin baitute haiek (-20,8).

Europako eta Espainiako etxekoak ez dira hain ezkorak

Informazio hori langabeziaren eta prezioen bilakaerari lotutako itxaropenekin osatu da⁷, eta, argi denez, positiboak dira Europako (+19,4 eta +13,2) zein Espainiako (+11,7 eta +7,6) etxekoentzat (ezberdintasunak daude, baina, aurrezteko itxaropenei dagokienez). Nabarmentzekoa da Europako etxekoen baikortasuna (+6,6) Espainiakoen ezkortasun txikiaren aldean (-4,8).

Etxeen konfiantza eta aurrezpena

	2022	2023	2023		2024	
			III	IV	I	II
Etxeen konfiantza¹ (± 100)						
UE-27	-21,7	-17,1	-15,8	-15,8	-14,3	-13,3
Espainia	-26,5	-19,2	-16,1	-19,0	-17,2	-14,4
Etxeen aurrezpena²; Δ urte artekoa %	4,5	-0,4	-1,0	-0,4	2,0	4,1

1. Hileko datuen hiruhilekoko batezbesteko datua eta hiruhilekoko datuen urteko batezbesteko datua. 2. Gordailuak. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteak itxierarena eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona. Iturria: Eurostat eta Espainiako Bankua

Espainiako etxekoen aurrezkien itxaropenen inguruan duten ezkortasun hori ez dator bat gordailuetako saldoaren bilakaerarekin⁸; izan ere, bigarren hiruhilekoan egin du gora (+% 4,1, urte artean) eta adierazten ari zen profila hobetu egin da (-% 1,0, -% 0,4 eta +% 2,0, 2023ko bigarren hiruhilekotik 2024ko lehenengora arte). Hala, Espainiako etxeetako gordailuetako saldoa serie historikoko erregistrorik handienara iritsi zen ekainean (1.010.931 milioi euro), eta horrek agerian utzi du familien erresilientzia ekonomikoa, prezio-oinarri altuagoa finkatzen ari den egoera inflazionista iraunkor baten aurrean.

Gordailuetako saldoa (aurrezkoa) gehieneko historikoetan dago.

⁶ Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeke etxeen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomiko orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako eresketa handiak kontuan hartzen dira.

⁷ Informazio osagarria, ez dago sartuta konfiantza-adierazle laburtzaileen kalkuluan.

⁸ Espainiako etxeetako Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuetako saldoa.

EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzak EAEko ekonomiarako hazkunde-aurreikuspenak eguneratu ditu (ekaina), 2024ko lehenengo hiruhilekoko emaitzak barne (Eustat). Horien inguruan, erakundeak ohi baino ziurgabetasun handiagoa⁹ aitortu du, nahiz eta, azkenean, itxaropenek hobera jo duten (+% 1,7; +3 hamarren). Hala, EAerako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak % 1,9an kokatu dira 2024rako, profil gero eta handiagoa izanik ekitaldian zehar (+% 1,7, +% 1,9, +% 2,0 eta +% 2,1, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera).

EAEko ekonomia % 1,9
haziko da 2024an

Itxaropen horiek etxekoen kontsumoaren (+% 1,8) eta administrazio publikoen (+% 2,3) dinamismoan finkatu dira, eta bi kasuetan hamarren bat hobetu da aurreko proiektzioaren aldean (2024ko martxoa). Bestalde, aurreikusi da kapital-eraketa gordinaren aurrerapena zertxobait txikiagoa izango dela (+% 2,2; -4 hamarren), "Europako testuinguruan inbertsioa kaskartzen ari den finantzaketa-kostu handien ondorioz, nahiz eta gora egiten jarraituko duen urtean zehar". Kanpoko saldoa pixka bat negatiboa izango litzateke, esportazioen emaitza dela-eta. Sektorearen arabera, zerbitzuek jarduera ekonomikoaren hazkundearen buru izaten jarraituko lukete (+% 2,3; hamarren bat gehiago), eraikuntzaren bultzadarekin batera (+% 1,8; +4 hamarren), eta industria-jarduera ez litzateke asko haziko (+% 0,7; -2 hamarren). Hala ere, goranzko bidea hartuko luke (+% 0,1etik +% 1,3ra, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera), European jarduera hobera doan heinean.

Euskal Autonomia Erkidegoa. Bilakaera eta egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	Bilakaera		Egoera makroekonomikoa (Hiruhilekoko banaketa)				
	2023p	I-24	II-24	III-24	IV-24	2024	2025
BPGd	1,8	1,7	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Etxeetako kontsumoa	1,5	1,7	1,7	2,0	1,9	1,8	1,9
Kontsumo publikoa	1,8	2,6	2,5	2,0	2,0	2,3	2,1
Inbertsioa (kapital finkoaren eraketa gordina)	2,1	1,3	2,1	2,6	2,9	2,2	2,4
Barneko eskariaren ekarpena	1,7	1,8	2,0	2,2	2,2	2,0	2,1
Kanpoko saldoaren ekarpena	0,1	-0,1	-0,1	-0,2	-0,2	-0,1	-0,1
Lehenengo sektorea	-3,0	-0,5	2,0	-0,4	1,8	0,7	3,0
Industria eta energia	0,3	0,1	0,5	1,0	1,3	0,7	1,6
Eraikuntza	2,1	2,0	1,7	1,7	1,6	1,8	1,8
Zerbitzuak	2,4	2,2	2,3	2,4	2,4	2,3	2,2

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2024ko ekaina)

EAEko ekonomiaren termometroa¹⁰ izugarri hobetu da (99,3, ekaina). Ondorioz, hazkunde-atalase tinko baterantz jo du eta azken urteko erregistrorik hoberena markatu du. Alabaina, emaitza hori ez dator bat EAEko enpresen nolabaiteko ezkortasunarekin (47,4, hirugarren


"Hazkunde-atalase tinkoa" doi-doi ukituz, enpresen konfiantza okerragotu egin den arren

⁹ 2024ko martxoan argitaratutako aurreko aurreikuspenetan.

¹⁰ Erreferentziatzeko unearen egoeraren adierazlea: hazkunde tinkoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta beherapena (50etik behera).


hiruhilekoa). Enpresen itxaropenek txarrera egin dute indize partzial guztietan, enpleguan izan ezik, eta hori izan da konfiantza-atalasea gainditu duen adierazle bakarra (50).

EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoak



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

EAEko enpresen aurreikuspenak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

Bigarren hiruhilekoan, EAEko etxeokoen konfiantza areagotu dute (+2 puntu) eta neutraltasunera hurbiltzen ari dira (-3). Horrela, hobekuntza-bidea sendotu da eta azken bederatzi hiruhilekoetako erregistrorik hoberena eman da. Emaita horretan eragina izan du aurrezteko gaitasunari buruzko itxaropen positiboek eta langabeziaren bilakaerak, etxeokoen ekonomiaren eta ekonomia orokorraren bilakaerari lotutako ezkortasun txikiagoaz gain. Hala, konfiantza-indize guztiek hobera egin dute eta EAEko etxeokoen baikortasunetik gertu igaro dute uda.

EAEko familiek konfiantza hobetu dute eta ia baikorrak dira

EAEko etxeen konfiantza

	2022	2023	2023		2024	
			III	IV	I	II
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-11,0	-9,5	-12,7	-9,0	-5,3	-3,3

Iturria: Euskal kontsumitzaileen konfiantza. Laboral Kutxa

Prezioak eta inflazioa

Lehenengo seihilekoaren bukaeran (ekaina) inflazioa % 3 baino gehiago hazi da urte artean (+% 3,4, +% 3,5 eta +% 3,5, Estatuarentzat, EA Erentzat eta Bizkaiarentzat); beraz, badakusagu ez duela amore ematen eta geldi geratu dela hobekuntza-ibilbidean. Izan ere, azken hilabeteotan, KPI orokorra zertxobait igo da eta duela urtebeteko erregistroetatik aldendu da (+% 1,9, +% 2,3 eta +% 2,3, 2023ko ekainean). Alde positiboa azpiko osagaiaren doikuntza da¹¹ (+% 3,0, Estatuarentzat eta EA Erentzat), zeinaren gehikuntza KPI orokorra baino txikiagoa baita eta erdira jaitsi baita 2023ko ekainaren aldean (+% 5,9 eta % 6,2).

Inflazioak ez du amore ematen...

Ondasun- eta zerbitzu-talde guztiek egin dute gora, eta nabarmen dira zenbait talderen gehikuntza (KPI orokorra baino handiagoa), hala nola etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk (+% 5,1), jatetxeak eta hotelak (+% 5,0), elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak¹² (+% 4,2).

Hala ere, aurrerapen-datuek (uztaila) argiro jaitsi dute Espainiako KPI orokorraren eta azpikoaren igoera; bi kasuetan, % 2,8an geratu da (-6 hamarren eta -2 hamarren, hurrenez hurren), elektrizitatearen eta elikagaien prezioen beherakadak lagunduta. Aurrerapen horrek EA Eko eta Bizkaiko inflazio-datuetan gertatuko den murrizketa adierazten du.

Baina aurrerapenaren arabera (uztaila, Espainia), KPI orokorra % 2,8 haziko da.

KPI Espainian, EA En eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	Estatua	KPI Orokorra			Azpiko KPIa ¹	
		EAE	Bizkaia	Egoera	EAE	
2023	ekaina	1,9	2,3	2,3	5,9	6,2
	uztaila	2,3	2,6	2,5	6,2	6,4
	abuztua	2,6	2,7	2,8	6,1	6,3
	iraila	3,5	3,6	3,7	5,8	6,1
	urria	3,5	3,5	3,5	5,2	5,4
	azaroa	3,2	3,4	3,5	4,5	4,8
	abendua	3,1	3,1	3,2	3,8	3,9
2024	urtarrila	3,4	3,5	3,6	3,6	3,8
	otsaila	2,8	3,1	3,3	3,5	3,9
	martxoa	3,2	3,2	3,3	3,3	3,4
	apirila	3,3	3,5	3,6	2,9	3,1
	maiatza	3,6	3,9	4,0	3,0	3,3
	ekaina	3,4	3,5	3,5	3,0	3,0

1. Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri. Iturria: EIN

Inguruko ekonomiek ere inflazioaren erresistentzia erakusten dute, KPI orokorraren profila geldituta baitago edo pixka bat gora egin baitu, azpiko KPIaren portaera hobearen aurrean; izan ere, indize orokorraren igoerarekin bat egiten eta doitzen jarraitzen du. Zehazkiago, Euroguneko inflazioa (ekaina) % 2,5koa eta % 2,8koa da KPI orokorrerako eta azpikorako (hamarren bat gehiago eta -3 hamarren, 2024ko martxoaren aldean), eta Espainia da inflazio

Europako ekonomiak ere geldirik daude, baina hobekuntza-profil baten barruan...

¹¹ Elaboratu gabeko elikagaien eta energia-produktuen efektua kenduta. Ez dago Bizkairako eskuragarri.

2024ko ekainaren 25ean, Espainiako Gobernuak oinarritzko elikagaien % 0ko BEZa luzatzea onetsi zuen, eta horiei oliba-olioa (behin betiko zerga % 4koa izango da) eta gainerako hazi-olioek eta elikadura-pastek BEZa % 5ean mantenduko dute. Neurri horiek indarrean egongo dira irailaren 30era arte, eta urritik aurrera karga normaletara itzuliko dira apurka-apurka.

handiena duena (+% 3,6 eta +% 3,2, hurrenez hurren), Italiaren aldean (+% 0,9 eta +% 2,1). Horrek agerian uzten du herrialde bakoitzaren ibilbidea eta emaitza.

EB-27ko KPI harmonizatua eta Europako ekonomiak. 2024ko ekaina


	urte arteko tasa		diferentzia / 2024ko martxo (pp)	
	KPI Orokorra ¹	Azpiko KPIa ²	KPI Orokorra	Azpiko KPIa
Eurogunea	2,5	2,8	0,1	-0,3
Alemania	2,5	3,1	0,2	-0,1
Frantzia	2,5	2,4	0,1	-0,2
Espainia	3,6	3,2	0,3	-0,2
Italia	0,9	2,1	-0,3	-0,3
Herbehereak	3,4	3,4	0,3	0,3
Danimarka	1,8	1,1	1,0	-0,4
Suedia	1,4	2,8	-0,9	-0,7
UE-27	2,6	3,0	0,0	-0,3

1. HICP - KPI Orokorr harmonizatua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPIa
Iturria: Eurostat

Hala ere, adierazi behar da esparru guztiak bat egiten ari direla, arian-arian, epe ertainerako % 2ko helbururantz (EBZ), eta horrek justifikatuko zukeen erakunde horrek ekainaren 6an hartutako erabakia¹³, interes-tasak oinarritzko 25 puntu jaistekoa, % 4,25eraino. Izan ere, adierazi dutenez, *“inflazio-perspektiben, azpiko inflazioaren dinamikaren eta moneta-politikaren transmisioaren intentsitatearen ebaluazio eguneratua oinarri hartuta, egokia da moneta-politikaren murrizketa-maila moderatzea, bederatzi hilabetez interes-tasak aldaketarik gabe mantendu ondoren”*. Azken bileran (uztailaren 18an) interes-tasak berretsi dira, honako hau aintzat hartuta: *“ziur aski inflazio orokorrek helburuaren gainetik jarraituko du hurrengo urtearen amaierara arte.”*

...Interes-tasen lehenengo beherapena justifikatuz (ekainaren 6a, EBZ)

Euribor, hamabi hilabete (%)



Iturria: Espainiako Bankua

¹³ Moneta-politikako erabakiak, 2024ko ekainaren 6a. <https://www.ecb.europa.eu/press/pr/activities/mopo/html/index.en.html>


EAEko BPGd-a

Bigarren hiruhilekoan (aurrerapena¹⁴, Eustat) EAEko ekonomia % 1,8 igo zen urte arteko tasan, eta hori azken urteko erregistrorik hobereana da. Bestalde, hiruhileko arteko bilakaerak (+% 0,4) hobekuntza-ibilbidea sendotzen du, eta lehenengo seiuhilekoaren balantzea¹⁵ aurreikuspen ekonomikoekin lerrotatuko litzateke. Enplegua ere, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtua, 2024ko bigarren hiruhilekoan hazi da (+% 0,6 eta +% 1,8, hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan) eta milioi bat LOB enpleguren atalazera iritsiko litzateke; zifrarik handiena 2008ko krisiaz geroztik.

EAEko ekonomiak hazten jarraitu zuen bigarren hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren aurrerapen-datuak Estatukoekin¹⁶ lerrotatuta daude, zeinak BPGd-aren (+% 0,8 eta +% 2,9, hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan) eta LOB enpleguaren hazkundera (+% 0,3 eta +% 2,0) espero baitu, 2024 osorako % 2,5eko eta % 2,2ko itxaropenekin¹⁷, hurrenez hurren.

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak, bolumen kateatuko indizean eta 2015eko oinarrian.

Sektore-informazio eskuragarriak (2024ko lehen hiruhilekoa) zerbitzuen dinamismo handia erakusten du, jarduera ekonomikoaren sektore bultzatzailea izanik – aztertutako aldi osoan % 2tik gora hazi da urte artean –, eraikuntzaren sektorearen bultzadarekin batera (+% 2,0, lehen hiruhilekoa), industria-jardueraren ahulezia (+% 0,1) – profil nahiko lauarekin – eta lehen sektorearen atzerakada konpentsatuz, doikuntza-profila murrizten ari baitzaio (-% 5,9, -% 4,4, -% 2,6 eta -% 0,5).

¹⁴ 2024ko uztailaren 22an argitaratua. Hiruhileko Kontu Ekonomikoaren emaitzak irailaren 24an argitaratuko dira.

¹⁵ Lehenengo eta bigarren hiruhilekoari dagozkien hiruhileko arteko tasen agregatuak (+% 0,6 eta +% 0,4, hurrenez hurren) EAEko ekonomiaren % 1,0ko hazkundera erakutsiko luke lehenengo seiuhilekoan, eta, beraz, urtearen lehenengo zatia osatuta, 2024 osorako hazkundera ekonomikoaren aurreikuspenekin lerrotatuta egongo litzateke (+% 1,9, Eusko Jaurlaritza). Kontuz: hiruhileko arteko tasen agregatua ez da urteko hazkunderaren neurri zehatza -hiruhileko bakoitzak ez du "pisu" berdina-, baina argigarria litzateke garrantzi-ordena eta aurreikuspen ekonomikoekin doikuntza ezartzeko.

¹⁶ EIN, 2024ko bigarren hiruhilekoko aurrerapena (2024ko uztailaren 30ean argitaratua).

¹⁷ Funcas, Espainiarako aurreikuspen ekonomikoak (2024ko uztailaren 4an argitaratua).

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2021	2022	2023	II	2023	IV	2024
					III		I
BPGd	6,0	5,4	1,8	1,5	1,7	1,7	1,7
Lehenengo sektorea	15,1	-8,7	-3,0	-5,9	-4,4	-2,6	-0,5
Industria eta energia	5,3	4,7	0,3	-0,7	0,5	0,1	0,1
Eraikuntza	1,0	6,7	2,1	3,6	2,5	1,5	2,0
Zerbitzuak	6,6	5,9	2,4	2,2	2,1	2,3	2,2
LOB Enplegua	2,7	2,8	1,7	1,6	1,7	1,9	2,0

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak. BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2015eko oinarrian

Enpleguak (lanaldi osoaren baliokidetzan) urte arteko gorakada izan zuen urte hasieran (+% 2,0), hobekuntza-profila sendotu zuen eta enplegu-oinarria, pixkanaka-pixkanaka, milioi bat LOB lanpostutara hurbiltzen ari da (992.829). Zentzu horretan, aipatzekoa da 2024ko bigarren hiruhilekoaren aurrerapen-datuek 998.000 lanpostu inguruko enplegu-maila adieraziko luketela; erregistrorik handiena da hori 2008az geroztik¹⁸, eta EAEko lan-merkatuaren ibilbide positiboa erakusten du. Erregistratutako bilakaera ikusita eta profil hori mantenduz gero, badirudi EAE atalase horretara iritsi daitekeela 2024. urtean, eta beste enplegu-adierazle batzuek dagoeneko erakusten duten gehieneko balioa izatea¹⁹.

Eta enplegua ere hobetu egin da eta milioi bat lanpostura hurbildu da (LOB)

Hala ere, enpleguaren bilakaera aldatu egiten da jarduera-sektorearen arabera²⁰. Nabarmentzekoa da zerbitzu-sektorearen bultzada, EAEko lau enplegutik ia hiru ekarri baititu (% 72,6, 2024ko lehen hiruhilekoa), eta gero eta ekarpen handiagoa egiten baitu, jarduera ekonomikoaren eta hirugarren sektoreko enpleguaren arabera, industriaren eta eraikuntzaren kaltetan, hainbat arrazoiengatik enplegu-zifra hoberenetik urrun jarraitzen baitute²¹.

¹⁸ LOB enpleguaren zifrarik hoberena 2008ko bigarren hiruhilekoan lortu zen (1.006.541) eta hamasei urte behar izan dira milioi bat LOB lanpostu inguru erregistratzeko.

¹⁹ Afiliazioa gehieneko historikoetan dago eta, argi denez, profil gorakorra du. Zehatz esanda, 2023ko irailaz geroztik, EAEk milioi bat afiliazio baino gehiago ditu, eta 2024ko ekainean serieko daturik hoberena lortu zuen (1.013.807).

²⁰ LOB enplegu onena 2008an erregistratu zen zerbitzuen sektoreari esker, baina industriari eta eraikuntzari 2007an maila horiek lortu zituzten eta lehen mailako sektorea enplegua galtzen ari da 1997tik aurrera.

²¹ Industria-enpleguak inbertsioaren eta berrikuntzaren efektua xurgatzen du; horrek esan nahi du produktibitatea hobetzen dela eta, halaber, enplegu-bolumena txikiagoa da. Eraikuntza-jardueraren egoera oso ezberdina da; lan-faktorearen osagaia oso garrantzitsua da, baina ibilbide horretan ez da egon azpiegiturako obra handirik (aurreko hamarkadetan gertatu zen bezala), eta ez da bizitegi-segmentua berreskuratu ere. Horrenbestez, 2008ko krisiaren ondoren erregistratutako jardueraren doikuntza eta enplegua oso garrantzitsua izan da eta ia-ia gaur eguneraino iraun du. Jarduera hori berreskuratzeko erronketako bat (kontuan hartuta oso zaila dela 2007ko mailetara itzultzea) da, hain zuzen ere, bizitegi-sektorea berriro aktibatzea eta, zehazki, etxebizitza berrien eraikuntza. Horrek, beste batzuen artean, bi mugari aurre egin behar die, alde batetik lurzoru-eskasiari, eta beste batetik (beste maila eta gaintze-aukera batzuekin) profil profesionalak faltatzeari.

LAN-MERKATUA


Afiliazioa

Urteko lehenengo zatia bukatuta (ekaina), Bilbok 194.949 afiliazio ditu gizarte-segurantz; hori urteko eta serie historikoko erregistrorik hoberena da, eta 200.000 afiliazioen atalaserantz doa. Hala, hiribilduak 190.000 afiliazio baino gehiagoko enplegu-oinarria sendotuz doa, eta kopuru hori 2024ko sei hilabeteetan gainditu da.

Bilbok 195.000 afiliazio ditu, duela urtebete baino 10.000 gehiago.

Hobekuntza-profila agerikoa da, duela urtebete baino 10.000 afiliazio gehiago izanda (184.966). Emaita oso nabarmena da hori, zifra horrek pandemia aurreko maila gaindituta baitzuen (180.289, 2019ko ekaina), eta hiribilduko lan-merkatuaren dinamismoa indartu zuen. Gainera, urteko profila desberdina da, ekaina egonkortasun-galerako hilabetea izan ohi delako, eta 2024an, berriz, afiliazioak gora egin delako hilabete horretan, eta urteko hileko daturik onena ere lortu du. Bigarren zatiaren zain gaude orain, joera mantenduz gero, 2024ko lehen seihilekoko erregistroak hobetuko lirakeelako.

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

Araubide guztiek hiribilduko afiliazioa hobetzen laguntzen dute, etxeko araubideak izan ezik, atzera egin baitu hiruhileko arteko tasan (-% 1,3) eta urte artekoan (-% 0,9). Nabarmentzekoa da araubide orokorraren gorakada (+% 2,0 y +% 6,4, hurrenez hurren), bi kasuetan hiribilduko afiliazio osoak erregistratutako gehikuntza gaintzen baitu (+% 1,7 eta +% 5,4), bai eta beste araubide batzuen taldeak ere²² (+% 6,1 eta +% 7,1) autonomoen araubidearen dinamismo txikiagoaren aldean (+% 0,2 y +% 0,3). Guztiarekin ere, soldatapeko enpleguak hiribilduko afiliazio osoaren funtsezko zatia biltzen du (% 85) eta gero eta ekarpen handiagoa egiten du, enplegu autonomoaren kaltetan, Bilboko enpleguaren % 11 baino ez baita.

Soldatapeko enpleguaren bultzadari esker...

²² Nekazaritza Erregimena eta Itsas Erregimena barne hartzen ditu.

Afiliazioa, araubideen arabera

	2024.06	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko martxoa)	Δ % urte artekoa (2023ko ekaina)
GUZTIRA	194.949	1,7	5,4
Araubide Orokorra	165.719	2,0	6,4
Autonomoak	22.061	0,2	0,3
Etxeko langileak	6.401	-1,3	-0,9
Beste batzuk	768	6,1	7,1

Iturria: Gizarte Segurantzza

Sektorearen azterketak xehe azaltzen du aipatutako bilakaera, lau sektore nagusiek partekatutako enpleguak hobera egin baitu hiruhileko artean. Urte arteko tasan, aldiz, zerbitzuek eta industriak soilik egin dute hobera (+% 5,9 y +% 3,2), eta eraikuntzaren sektoreari eta lehenengo sektoreari adskribatutako enpleguak galera izan du (-% 0,6 eta -% 8,4). Guztiarekin ere, azpimarratu beharra dago zerbitzuek hiribilduko afiliazio osoan erregistratutako irabaziaren zati handiena xurgatzen dutela.

...eta zerbitzuen sektorearen hobekuntza, irabaziaren zati handiena xurgatzen baitu

Afiliazioa, jarduera-adarren arabera

	2024.6	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko artxoa)	Δ % urte artekoa (2023ko ekaina)
Lehenengo sektorea	251	0,8	-8,4
Industria eta energia	9.028	2,2	3,2
Industria	5.167	1,1	4,7
Energia	1.144	0,4	4,1
Hondakinak eta ura	2.717	5,1	0,1
Eraikuntza	9.367	1,6	-0,6
Eraikuntza	3.295	2,1	3,1
Eraikuntza-laguntzailea	6.072	1,3	-2,5
Zerbitzuak	176.289	1,7	5,9
Merkataritza	20.512	8,7	6,5
Garraioa eta biltegiatzea	9.439	1,4	2,6
Ostalaritza	10.859	-0,7	6,7
Ostatua	2.001	8,1	7,4
Informazioa eta komunikazioak	10.840	1,7	10,1
Finantza eta aseguruak	7.440	1,0	4,0
Higiezinaren alorreko jarduerak	1.234	1,4	0,6
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	15.181	1,1	4,4
Administrazio eta zerbitzu osagarriak	19.089	6,5	13,0
Administrazio publikoa	12.178	-2,2	0,2
Hezkuntza	24.212	-5,9	6,6
Osasuna	15.548	11,9	7,1
Gizarte zerbitzuak	10.059	-1,8	3,1
Aisialdia eta kultura	4.157	-4,1	11,9
Etxeko langileak	6.862	-1,2	-0,9
Beste zerbitzu batzuk	6.678	0,4	1,7

Oharra: Guztira arteko desberdintasuna sektore-esleipena zehaztuta ez dituzten afiliazioei dagokie.
Iturria: Gizarte Segurantzza

Zehazki, enplegua gehien hobetu duten zerbitzu-sektorearen jarduera-adarrak (urte artean) jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak (+% 13,0), hezkuntza (+% 6,6), merkataritza (+% 6,5) eta osasuna dira (+% 7,1). Horietako bakoitzari, gutxienez, mila afiliazio gehitu zaie, aurreko urteko egoeraren aldean. Halaber, lau jarduera horiek dira hiruhileko arteko tasan gehien hazi direnak, hezkuntza izan ezik (-% 5,9), atzera egin baitu 2024ko martxoarekin alderatuta, ikasturtearen amaieraren ondorioz.

Bestalde, enplegua galdu duten hirugarren sektoreko jarduera-adarrak sei dira (hiruhileko arteko tasan), honako hauek barne, hezkuntzaz gain (-% 5,9): administrazio publikoa (-% 2,2), gizarte-zerbitzuak (-% 1,8), aisialdi- eta kultura-jarduerak (-4,1%), ostalaritza (-% 0,7) eta etxeko langileak (-% 1,2). Azken hori urte arteko tasan atzera ere egiten duen hirugarren sektoreko jarduera bakarra da (-% 0,9).

Benchmarkina. Afiliazioa

	2024.6	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko martxoa)	Δ % urte artekoa (2023ko ekaina)
Madril	2.338.015	1,1	4,9
Bartzelona	1.232.810	1,1	3,7
Valentzia	454.192	1,2	5,6
Sevilla	402.437	-0,2	4,8
Zaragoza	317.190	0,3	4,0
G-5 multzoaren batezbestekoa	--	0,7	4,6
BILBO	194.949	1,7	5,4
Gasteiz	128.523	0,8	2,9
Donostia	127.136	1,6	3,6
Iruñea	117.318	2,1	4,5
G-3 multzoaren batezbestekoa	--	1,5	3,7
G-9 multzoaren batezbestekoa	--	1,1	4,4

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. Iturria: Gizarte Segurantza

Azkenik, adierazi behar da Bilboren erreferentziako hiriburuek afiliazioaren urte arteko hobekuntza handia partekatzen dutela, % 4-5 inguru hazi baitira kasu guztietan; azpimarratzekoak dira Valentzia (+% 5,6), Madril (+% 4,9), Sevilla (+% 4,8) eta Zaragoza²³ (+% 4,0), EAEko hiriburuen dinamismoarekin batera. Bilbo da bultzada handiena izan duena (+% 5,4), Iruñearekin (+% 4,5) eta Donostiarekin (+% 3,6) batera, eta, neurri txikiagoan, Gasteiz (+% 2,9). Guztiarekin ere, EAEko hiriburuek (G-3 multzoaren batezbestekoa) afiliazioaren urte arteko hobekuntza erregistratu dute (+% 3,7), eta hori aintzat hartutako Estatuko hiriburuen panelaren azpitik dago, pixka bat (G-5 multzoaren batezbestekoa; +% 4,6).

Enpleguaren hobekuntza orokorra erreferentziako hiriburuetan

Hiruhileko arteko bilakaera lauagoa da, hazkundeak % 1etik gertu baitaude edota negatiboak baitira, Sevillan adibidez (-% 0,2). Azkenik, nabarmentzekoa da hiruhileko arteko bilakaera EAEko hiriburuei mesedegarriago izan zaiela (+% 1,5), eta Estatuko hiriburuen taldeak erregistratuko hazkundearen bikoitza dela (+% 0,7).

²³ 2023ko urritik aurrera gizarte-segurantzak ez du jasotzen Zaragozako afiliazioaren zifra zehatza (dio balio jakin bat gainditzen duela), ikatz-meataritzaren araubide bereziari atxikitako afiliazioa bost baino txikiagoa baita (estatistika-sekretua). Afiliazioaren zifra osoa kalkulatzeko lau afiliazio esleitzen zaizkio Meataritzaren araubide bereziari.

Kontratuak

Bilbon bizi direnek bigarren hiruhilekoan erregistratutako kontratuak 28.626 izan ziren, aurreko urteko balio bera ia (28.656 kontratu), baina hiruhileko arteko gorakada itzela da (+% 7,1), urtaroen arabera portaerari lotuta. Oro har, lehenengo seihilekoaren balantzea 2023an erregistratutakoa baino kontratazio-bolumen handiagoaren isla da (55.344 kontratu berri; +% 3,5 eta +1.865 kontratu berri).

Aurten 55.344 kontratu berri erregistratu dira (pertsonegoiarrak), 2023an baino % 3,5 gehiago.

Lan-kontratu bat sinatu duten egoiliarren karakterizazioak emaitza horiek argitzen ditu. Gauzak horrela, urte arteko bilakaeraren (-% 0,1) arrazoa da emakumeak gutxiago kontratatu direla (-% 3,0) eta gizonezkoak gehiago (+% 2,8). Oro har, baina, konpentsatu egiten dira. Adin-taldean arabera, kolektiborik gazteenaren kontratazioan erregistratutako gorakada nabari da (+% 7,2; 16-24 urte) tarteko adin-taldean murrizketaren (-% 4,4 eta -% 3,8, 25-34 eta 35-44 urte bitartekoak) eta 45 urte eta gehiagokoen taldearen egonkortasunaren aurrean (+% 0,8). Hirugarren sektorea da hobetu den bakarra (+% 0,9), eta beste hiru jarduera-sektore handiek erregistratutako murrizketa konpentsatu du (-% 1,4, -% 5,2 eta -% 24,1, eraikuntza, industrian eta lehenengo sektorean). Eta, kontratu mugagabeen urte arteko atzerakada gorabehera (-% 5,6, +% 4,1ren aurrean), aipatzekoa da modalitate horrek hiribilduko egoiliarrek erregistratutako hamar kontratu berritik lau (% 41,1) dakarrela.

Bestalde, hiruhilekoen arteko bilakaerak (+% 7,1) kontratazioaren hobekuntza orokorra erakusten du, emakumeen eta gizonen kolektiboek partekatzen dutena (+% 6,9 eta +% 7,4), eta gorakada nabarmena izan du gazteen kontratazioak (+% 21,9), zerbitzuen sektorean eta industrian zentratuta (+% 7,0 eta +% 14,1), kontratazio mugagabearen dinamismoarekin batera (+% 48,1). Gainera, aldi baterako modalitatearen murrizketarekin konpentsatzen da (-% 10,2), urte arteko bilakaeran ez bezala.

Kontratuak

	I.2024	II.2024	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko I. hiruhileko gainean)	Δ % urte artekoa (2023ko II. hiruhileko gainean)
GUZTIRA	26.718	28.626	7,1	-0,1
Emakumeak	13.060	13.957	6,9	-3,0
Gizonak	13.658	14.669	7,4	2,8
16-24 urte bitartekoak	6.138	7.483	21,9	7,2
25-34 urte bitartekoak	7.679	7.985	4,0	-4,4
35-44 urte bitartekoak	5.364	5.577	4,0	-3,8
45 urte eta gehiagokoak	7.537	7.581	0,6	0,8
Mugagabeak	7.945	11.769	48,1	-5,6
Aldi baterako	18.766	16.857	-10,2	4,1
Lehenengo sektorea	354	349	-1,4	-24,1
Industria eta energia	1.941	2.214	14,1	-5,2
Eraikuntza	1.130	1.122	-0,7	-1,4
Zerbitzuak	23.293	24.935	7,0	0,9


Bilboko populazioak erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: SEPE

Erregistratutako langabezia

Bilbok 2024an (urtarrila-ekaina) erregistratutako langabezia-tasa txikiena izan du ekainean; 20.981 langabe daude inskribatuta, eta 21.000 pertsonaren atalasearen azpitik geratu da lehenengo aldiz aurten. Halaber, martxoan izandako gorakadatik aldendu da, garai hartan ia 22.000 langabe baitzeuden (21.963). Hala, hiribilduak langabeziaren doikuntza-bidera itzuli da, hiru hilabete egon baita beherantz (apirila-ekaina), eta duela urtebeteko balio berbera errepikatu da ia (20.658).

Ekainean urteko langabezia-tasa txikiena erregistratu da, inskribatutako 21.000 pertsona gutxiago baitaude inskribatuta.

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Langabeziaren hiruhileko arteko murrizketa erregistratua (-% 4,5) orokorra da, eta ohargarria da gizonetzkoen zein emakumezkoen kolektiboaren doikuntza (-% 5,2 eta -% 3,9). Gainera, adinari dagokionez behera doan profila du (-% 10,0, -% 7,4, -% 3,2 eta -% 3,1, 16-24 adin-tartetik 45 urte eta gehiagora). Biztanleria langabearen murrizketa handiagoa da prestazioa kobratzen duen taldean (-% 6,0 eta -% 3,9), eta aipatzekoa da beherakada bakarria langabeziaren inskribatuta denbora gutxien daraman taldea dela (-% 12,2, sei hilabetera arte). Bitartean, gainerako taldeetan tasak gora egin du.

Bestalde, urte arteko bilakaerak biztanle langabe pixka bat gehiago daudela adierazi du (+% 1,6); gehiago izan dira gizonetzkoak (+% 2,3, +% 1,0ren aldean), eta, batez ere, talderik gazteenak (+% 9,7). Erregistratutako langabezia-tasaren urte arteko atzerakada bakarria langabeziaren hiru urte baino gehiago inskribatuta daramatzan taldea izan da²⁴ (-% 7,1).

²⁴ Erretreta izatea?

Erregistratutako langabezia

	2024.6	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko martxoa)	Δ % urte artekoa (2023ko ekaina)
GUZTIRA	20.981	-4,5	1,6
Emakumeak	11.842	-3,9	1,0
Gizonak	9.139	-5,2	2,3
16-24 urte bitartekoak	1.786	-10,0	9,7
25-34 urte bitartekoak	3.315	-7,4	3,6
35-44 urte bitartekoak	4.083	-3,2	0,5
45 urte eta gehiagokoak	11.797	-3,1	0,3
6 hilabete baino gutxiago	6.564	-12,2	3,7
6 hilabete eta 1 urte bitartekoak	3.030	0,3	1,2
Urte 1 eta 2 bitartean	3.265	0,5	8,6
2 eta 3 urte bitartean	1.726	2,8	19,3
3 urte baino gehiagokoak	6.396	-2,2	-7,1
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.211	-3,9	1,5
Langabezia prestazioa kobratzen du	5.770	-6,0	1,7

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Erreferentziako hiriburu guztiek erregistratutako langabezia-tasaren hiruhileko arteko murrizketa erakusten dute, eta gehiengoak biztanleria langabearen bolumena ere urritu du urte arteko tasan, Bartzelonan (+% 2,1), Donostian (+% 3,6) eta Bilbon (+% 1,6) izan ezik. Urte arteko murrizketa handiena Sevillan (-% 5,9) eta Zaragozan (-% 5,7) izan da, eta Estatuko hiriburuek (-% 3,4; G-5 multzoaren batezbestekoa) EAEko hiriburuek baino jardun pixka bat hobea izan dute (-% 0,5; G-3 multzoaren batezbestekoa).

Oro har, populazio langabetuak behera egin du

Benchmarkina. Erregistratutako langabezia

	2024.6	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko martxoa)	Δ % urte artekoa (2023ko ekaina)
Madril	137.620	-5,8	-3,7
Bartzelona	61.551	-5,5	2,1
Valentzia	45.386	-3,0	-3,8
Sevilla	57.787	-5,5	-5,9
Zaragoza	28.913	-7,2	-5,7
G-5 multzoaren batezbestekoa	--	-5,4	-3,4
BILBO	20.981	-4,5	1,6
Gasteiz	13.929	-5,4	-4,5
Donostia	6.603	-5,7	3,6
Iruñea	9.800	-5,2	-0,5
G-3 multzoaren batezbestekoa	--	-5,4	-0,5
G-9 multzoaren batezbestekoa	--	-5,3	-1,9

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE


Biztanleria aktiboa

Biztanleria aktiboaren inkestaren azken datuen arabera (bigarren hiruhilekoak), Bilboko biztanle aktiboak 179,4 mila dira; horietatik 162,6 mila pertsona landunak dira, eta 16,8 mila langabeak. Urte arteko bilakaerak agerian uzten du biztanle landunaren (+% 8,5) eta langabearen (+% 32,3) gehikuntza, afiliazioaren (+% 5,4) eta erregistratutako langabezia-tasaren (+% 1,6) emaitzarekin lerrotatuta.

Hiribilduko biztanleria landunak gora egin du eta langabeak behera)

Hiribilduko enplegu-adierazleei dagokienez, EINen kalkuluen arabera, langabezia-tasa % 9,35ekoa da, eta desberdintasun handiak daude emakumezkoen (% 4,40) eta gizonezkoen (% 13,90) artean. Enplegu-tasa, aldiz, % 53,44koa da, eta handiagoa da gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino (% 56,07 eta % 51,08).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN (2021)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	III.2023	IV.2023	I.2024	II.2024	Hiruhileko artekoa Δ %	Urte artekoa Δ %
Biztanleria aktiboa (milakotan)	162,6	174,4	162,1	179,4	10,7	10,4
Biztanleria landuna (milakotan)	150,9	160,3	145,4	162,6	11,8	8,5
Nekazaritza	0,0	0,5	0,5	0,0	--	--
Industria	13,5	16,4	16,0	14,4	-10,0	-13,3
Eraikuntza	6,4	8,0	7,2	6,5	-9,7	-18,8
Zerbitzuak	131,0	135,4	121,7	141,8	16,5	13,7
Langabeak (milakotan)	11,7	14,0	16,7	16,8	0,6	32,3
Enplegu-tasa (%)	50,71	53,31	50,07	53,44	3,4	3,0
Emakumeak	45,55	48,59	45,82	51,08	5,3	5,6
Gizonak	56,28	58,93	54,86	56,07	1,2	0,2
Langabezia-tasa (%)	7,19	8,05	10,29	9,35	-0,9	1,6
Emakumeak	4,36	9,51	8,58	4,40	-4,2	-1,8
Gizonak	9,53	6,58	11,85	13,90	2,1	4,7

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldatuntza-tasa ehuneko puntutan.
Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN (2021)

MERKATARITZA

Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentek % 1,4ko jaitsiera erregistratu dute (prezio arruntetan) urteko lehenengo hiruhilekoan, eta 2023ko azken hiruhilekoan antzemandako dinamismo-galeraren bidea indartu da. Era berean, eta inflazioaren eragina kenduta (prezio konstanteak; hazkunde errealaren adierazlea) salmentek jaitsiera areagotu eta Lurraldeko merkataritza-jardueraren dinamismo-galera berretsi dute (-% 2,1), salmenten ondorez ondoko lau hiruhilekotan izandako jaitsiera gehituta²⁵.

Merkataritza-sektorearen salmentek behera egin dute (termino arruntetan eta konstanteetan)

Hala ere, sektorearen xehetasunetan, Bizkaiko txikizkako merkataritzaren salmentek % 2,7ko gehikuntza erregistratu dute urteko lehenengo hiruhilekoan (prezio arruntetan), elikagaien segmentuaren (+% 5,0), eta, neurri txikiagoan, elikagaiez besteko segmentuaren (+% 0,7) portaera onagatik. Hori bai, inflazioaren eragina kenduta, txikizkako salmentak egonkor mantendu dira (% 0,0) elikagaien gehikuntzagatik (+% 0,8) eta gainerako produktuen jaitsieragatik (-% 0,6).

Txikizkako merkataritzaren balantzea positiboa da (+% 2,4 prezio konstanteetan)

Azkenik, emaitza horiek sektoreak EAEn izandako bilakaerarekin²⁶ lerrokatuta daude (-% 2,1, prezio konstanteetan). Hori handizkako merkataritzaren segmentuaren jardun txarragoaren ondorio da (-% 4,8), bai eta txikizkako segmentuaren atzerakada txikiarena ere (-% 0,8), eta hori ezin da ibilgailuen salmenta eta konponketaren gorakadarekin konpentsatu (+% 9,6).

Merkataritza

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	III.2023	IV.2023	I.2024	III.2023	IV.2023	I.2024
Salmentak	0,3	-1,2	-1,4	-1,6	-2,9	-2,1
Landunen indizea	1,3	2,2	2,7	--	--	--
Txikizkako merkataritzaren salmentak*	7,0	4,1	2,7	2,7	0,9	0,0
Elikagaiak	10,5	6,1	5,0	3,1	0,6	0,8
Gainerako produktuak	4,0	2,3	0,7	2,5	1,1	-0,6

*Indize orokorra, erregai-zerbitzugunerik gabe. Bizkaiko datuak, egutegiaren eta langileen adierazleen ondorioekin zuzendutakoak eta gordinak. Uneko urteko behin-behineko datuak. Oinarria: 2015. Iturria: Eustat

Bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handien salmentek hobekuntza-erritmoa moteldu dute, eta profila, argi denez, beherantz doa prezio arruntetan (+% 9,8, +% 5,9, +% 4,4 eta +% 2,5, 2023ko hirugarren hiruhilekotik 2024ko bigarrenera) eta konstanteetan (+% 1,7, +% 0,2, -% 0,2 eta -% 1,1, hurrenez hurren). Hala ere, aipatzekoa da jardueraren bilakaera oraindik positiboa dela prezio arruntetan, ez hainbeste prezio konstanteetan, salmentek behera egin baitute bi hiruhilekoz jarraian.

Saltoki handietan salmenten hazkundera motel doa

²⁵ Eustatek jada ez du lurralde historikoen informazio berezia hiru jarduera-sektoretan argitaratzen (handizkako merkataritza, txikizkako merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa), eta horrenbestez, ez dugu Bizkaiko datu bereizirik. EAerako eskuragarri dauden datuek sektorearen salmenten % 0,8ko jaitsiera (urte artekoa) erakusten dute (prezio arruntetan) 2024ko lehenengo hiruhilekoan. Sektorearen hazkunde errealaren negatiboa da (-% 2,1).

²⁶ Ez dago lurralde historikoen araberako sektore-bereizketarik; EAeko informazioa nahikoa argigarria izan daiteke Bizkairako.

Bilakaera hori bi jarduera-segmentuekin partekatuta dago, elikagaien taldeak, oro har, elikagaiez besteko segmentuak baino dinamismo handiagoa erakusten badu ere (lehenengoak: +% 3,7 eta -% 0,7, prezio arruntetan eta konstanteetan; bigarrenak: +% 0,1 eta -% 1,8, hurrenez hurren). Bestalde, sektoreko enpleguak hobera egiten jarraitzen du (+% 0,4), baina aurreko hiruhilekoetan baino erritmo lasaiagoan (+% 1,9, +% 2,7 eta +% 1,9, 2023ko hirugarren hiruhilekotik 2024ko lehenengora).

2024ko lehenengo seihilekoko balantzearen arabera, jarduerak gora egin du prezio arruntetan (+% 3,4), elikagaien segmentuan oinarrituta (+% 5,3), eta elikagaiez besteko segmentua, aldiz, egonkorra izan da (% 0,0). Prezio konstanteetan (hazkunde erreala) merkataritza-gune handien jarduerak pixka bat egin du atzera (-% 0,7), elikagaiez besteko segmentuak jardun txarragoa izan duelako (-% 2,2), eta hori ez da konpentsatzen elikagaien taldearen hobekuntza txikiarekin (+% 0,3). Enplegua % 1,1 igo da aurten.

Merkataritza-gune handien salmentak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)				(prezio konstanteak)			
	III.23	IV.23	I.24	II.24	III.23	IV.23	I.24	II.24
Salmentak	9,8	5,9	4,4	2,5	1,7	0,2	-0,2	-1,1
Elikagaiak	12,8	7,8	7,0	3,7	3,2	0,4	1,2	-0,7
Gainerako produktuak	4,8	2,7	-0,2	0,1	-0,5	0,0	-2,6	-1,8
Landunen indizea	1,9	2,7	1,9	0,4	--	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioekin zuzendutakoak, eta enplegu datuak, urtaroko efektua kenduta. Oinarria: 2021 Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat

2024ko bigarren hiruhilekoan, 3.395 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian, eta urte artean % 3,7 jaitsi dira (-129 ibilgailu). Atzerakada hori enpresako ibilgailuen eta bestelako matrikulazioan izandako dinamismo-galeraren ondorio da (-% 23,6 urte artean), eta ibilgailu partikularren matrikulazioaren portaera onak ez du konpentsatu (+% 7,9). Aitzitik, hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan da (+% 3,0), segmentu partikularren matrikulazioak gora egin duelako (+% 5,5), enpresako ibilgailuen eta bestelakoen jaitsiera txikiaren aurrean (-% 2,6). Lehenengo seihilekoaren balantzeak 2023koaren antzeko matrikulazioa erakusten du (+% 0,6), eta nabarmen da partikularren segmentuaren dinamismoa (+% 9,6) enpresa-taldearen murrizketaren aurrean (-% 15,7).

Ibilgailuen matrikulazioa jaitsi egin da bigarren hiruhilekoan (-% 3,7, urte artean), balantze neutroarekin (+% 0,6; urtarrila-ekaina).

Ibilgailuen matrikulazioa

	III. 2023	IV. 2023	I. 2024	II. 2024	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Guztira	2.781	3.598	3.296	3.395	3,0	-3,7
Partikularrak	1.886	2.471	2.281	2.406	5,5	7,9
Enpresakoak eta beste batzuk	895	1.127	1.015	989	-2,6	-23,6

Bizkaiko datuak.

Iturria: Anfac

Hiribilduko merkataritzaren adierazleak sektoreari lotutako afiliazioari buruzko informazioarekin osatzen dira, eta afiliazio horrek, ekainean, agerian uzten du enpleguak hobera egin duela; izan ere, sei hilekoaren bukaeran afiliazioa % 6,5 hazi da urte artean.

Merkataritzari lotutako afiliazioaren gorakada, baina enpresa-sarearen galera

Enpleguaren hobekuntza hori hiru jarduera-azpisektoreekin partekatzen da. Zehazkiago, txikizkako merkataritzako afiliazioak % 7,8 egin du gora, handizkako merkataritzari lotutako enpleguak % 3,0 eta ibilgailuen salmenta eta konponketaren adarreko afiliazioak, % 2,6.

Dinamismo hori ez da enpresa-sarearekin partekatzen, ekainean % 0,7 murriztu baita, 2023ko ekainarekin alderatuta. Hori txikizkako merkataritzako (-% 0,7), handizkako merkataritzako (-% 0,5) eta ibilgailuen salmenta eta konponketako (-% 1,2) enpresa gutxiago egotearen ondorio da.

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	2023.09	2023.12	2024.03	2024.06	% Δ 2024.06	
					hiruhileko artean	urte artean
Afiliatuak¹	19.299	19.686	18.871	20.512	8,7	6,5
Handizkako merkataritza	4.263	4.263	4.249	4.299	1,2	3,0
Txikizkako merkataritza	13.911	14.293	13.487	15.059	11,7	7,8
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.125	1.130	1.135	1.154	1,7	2,6
Enpresak²	2.370	2.395	2.352	2.370	0,8	-0,7
Handizkako merkataritza	593	591	582	583	0,2	-0,5
Txikizkako merkataritza	1.614	1.638	1.604	1.627	1,4	-0,7
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	163	166	166	160	-3,6	-1,2
Soldatapeko batez besteko enplegua³	5,9	6,0	5,8	6,5	--	--
Enplegu autonomoaren %	27,1	26,5	27,6	25,5	--	--

1. Enplegua, guztira (araubide guztiei dagokiena). 2. Kotizazio-kontuak, Araubide Orokorreko afiliatorako euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.
Iturria: GSDN


TURISMOA

Urteko bigarren hiruhilekoko informazioa apiriletik ekainera bitartekoa da. Definizio horri jarraiki, Bilboko hotel-establezimenduen jarduerak % 2,8ko urte arteko jaitsiera erregistratu du ostatu-gauetan eta % 1,6koa bidaiarietan.

Martxotik ekainera bitarteko balantzearen arabera, hiribilduko hotel-jarduerak gora egingo du

Bidaiari-kopuruaren hileroko azterketak (martxoko informazioa barne, bigarren hiruhilekoko ez den arren) erakusten du martxoak 2.618 bidaiari irabazi zituela urte artean, apirilak 6.734 galdu zituela, eta maiatzak eta ekainak 1.254 eta 663 irabazi zituztela, hurrenez hurren. Sekuentzia hori ostatu-gauei dagokienez errepikatzen da; martxoak eta maiatzak saldo positiboak dituzte (+11.788 eta +2.862), eta apirilak eta ekainak, ordea, negatiboak (-18.663 eta -340). Hala, martxotik ekainera bitarteko balantze bateratuak (homogeneoa dena 2023 eta 2024rako) nolabaiteko geldialdi bat edo jaitsiera-profila adierazten du, bidaiari-bolumena (-% 0,6, -2.199 bidaiari) eta ostatu-gauena (-% 0,6 eta -4.353 ostatu-gau) 2023an erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoa izan baita.

Bidaiariak eta ostatu-gauak hotel-establezimenduetan Bilbon



Iturria: Eustat

Erantsitako taulak lehenengo bi hiruhilekoetako emaitzak eta urteko lehenengo seiuhilekoko balantzea bildu ditu, eta balantzeak hiribilduko hotel-jarduerak erregistratutako bidaiari-bolumenak eta ostatu-gauenak pixka bat behera egin dutela azaleratzen du (-% 0,5 eta -% 1,4, hurrenez hurren). Gauzak horrela, udako emaitzak erabakigarriak izango dira emaitza hori leheneratzeko eta hazkunde-bidean jarraituko duen urteko balantzea lortu ahal izateko.

Zehatz esanda, ostatu-gauen geldialdia kategorია txikiagoko segmentuan erregistratutako jaitsieragatik da (-% 5,3) hiru izar eta gehiago dituztenen segmentuaren aurrean (-% 0,1), ia balio bera baitute. Era berean, segmentu nazionalaren murrizketa nabarmentzen da (-% 6,8), ezin dena nazioartekoaren dinamismoarekin konpentsatu (+% 3,7); emaitza hori bidaiarien bilakaerarekin lerrokatuta dago, nazionalak urriagoak baitira (-% 4,0) eta atzerrikoak gehiago (+% 3,5). Azkenik, Bilboko hotel-establezimenduen batez besteko egonaldia 1,89 egunekoa izan da, bigarren hiruhilekoan zertxobait handiagoa (1,92 egun, 1,85ren aldean).

Nazioarteko segmentuak hazten jarraitzen du (+% 3,5 eta +% 3,7, bidaiari eta ostatu-gauetan)...

....Nazionala, aldiz, indargabetu egin da (-% 4,0 eta -% 6,8, bidaiari eta ostatu-gauetan)

Turismoa

	I.2024	II.2024	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	2024ko I. seihileko gainean	Δ % urte artekoa
Ostatu-gauak	410.679	570.337	38,9	-2,8	981.016	-1,4
3 izar eta gehiagoko hotelak	319.902	429.874	34,4	-2,7	749.776	-0,1
3* baino gutxiagoko hotelak eta apopilo-etxeak	90.777	140.463	54,7	-3,0	231.240	-5,3
Estatukoak	235.252	215.696	-8,3	-7,0	450.948	-6,8
Atzerritarrak	175.427	354.641	102,2	0,0	530.068	3,7
Bidaiariak	221.474	297.092	34,1	-1,6	518.566	-0,5
Estatukoak	137.228	125.807	-8,3	-3,8	263.035	-4,0
Atzerritarrak	84.246	171.285	103,3	0,1	255.531	3,5
Batez besteko egonaldia	1,85	1,92	--	--	1,89	--

Batez besteko egonaldia: ostatu-gauak/bidaiariak (egunak) *Aldakuntza ehuneko puntuetan.
Iturria: Eustat

Erreferentziako hiriburuek hiruhilekoen arteko hobekuntza partekatzen dute, urteko aldi horri lotutako jarduerari dagokionez, nahiz eta urte arteko tasan Bilbo joera orokorretik aldentzeko litzatekeen, ostatu-gauen jaitzieragatik (-% 2,8 eta -% 1,4), Bartzelonaren antzekoa (-%2,1 eta -% 4,9). Kontuan hartutako hiriburu gehienek, ordea, hazkundea erregistratu dute, eta honako hauen dinamismoa nabarmentzen da: Sevilla (+% 16,3 eta +% 7,0), Gasteiz (+% 11,3 eta +% 13,0) eta Donostia (+% 7,5 eta +% 12,2).

Bilbok erreferentziako hiriburuek baino jardun erlatibo txarragoa du

Benchmarkina. Ostatu-gauak

	I.2024	II.2024	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	2024ko I. seihileko gainean	Δ % urte artekoa
Madril	4.740.924	5.551.757	17,1	4,4	10.292.681	1,5
Bartzelona	4.751.214	5.929.337	24,8	-2,1	10.680.551	-4,9
Valentzia	1.112.403	1.359.805	22,2	4,4	2.472.208	2,8
Sevilla	1.540.953	1.786.776	16,0	16,3	3.327.729	7,0
Zaragoza	456.868	531.010	16,2	6,0	987.878	1,6
G-5 multzoaren batezbestekoa	--	--	19,3	5,8	--	1,6
BILBO	410.679	570.337	38,9	-2,8	981.016	-1,4
Gasteiz	182.796	213.922	17,0	11,3	396.718	13,0
Donostia	386.339	571.136	47,8	7,5	957.475	12,2
Iruñea	127.242	171.532	34,8	3,6	298.774	-1,7
G-3 multzoaren batezbestekoa	--	--	33,2	7,5	--	7,8
G-9 multzoaren batezbestekoa	--	--	23,5	3,6	--	3,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIN

GARRAIOA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuko bidaiari-kopurua igo egin da urteko bigarren hiruhilekoaren bukaeran (+% 9,1, urte arteko tasan); guztira, 1.861.280 pertsona garraiatu dira, eta hori bigarren zifrarik handiena da, 2023ko hirugarren hiruhilekoan lortutakoaren atzetik. Gainera, garrantzikoa da azpimarratzea, bilakaera positiboa bada ere, nazioarteko hegaldiek erregistratutako dinamismoak aiseki gainditzen duela nazionalen jarduna (+% 17,4 eta +% 3,5, urte arteko tasan, hurrenez hurren).

Bilboko aireportuko bidaiari-kopurua gero eta handiagoa da (+% 9,1, urte arteko tasan)

Hiruhileko artekoari dagokionez, erregistratutako hazkundera are handiagoa da (+% 43,3), eta bilakaera horren arrazoia Aste Santua²⁷, bidaiari ugari dituzten jarduera puntualak edo eskaintako helmugan gorakada izan daitezke, lortutako emaitzak eragiten baitituzte.


Nazioarteko dinamismoak (+% 17,4) nazionala gainditzen du (+% 3,5)

Aireko garraioa

	I. 2024	II. 2024	% Δ urte artekoa	Δ % hiruhileko artekoa	2024ko I. sei hileko gainean	% Δ urte artekoa
Bidaiariak (kop.)	1.298.636	1.861.280	9,1	43,3	3.159.916	11,8
Hegaldi komertzialak	1.295.461	1.858.506	9,1	43,5	3.153.967	11,8
Nazionalak	829.943	1.054.376	3,5	27,0	1.884.319	6,6
Nazioartekoak	465.518	804.130	17,4	72,7	1.269.648	20,4
Hegaldiak (kop.)	10.428	14.420	2,9	38,3	24.848	4,0

Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Bidaiariak Loiuko aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren arabera sailkapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

²⁷ 2023an, Aste Santua eta Pazko Astea apirilean izan ziren, eta 2024an, berriz, martxotik apirilera bitartean. Hori dela eta, hiruhileko jardueraren konparagarritasuna ez da guztiz homogeneoa bi urteen artean.

Bidaiaren trafikoaren hileroko bilakaeran, hazkunde orokorra antzeman da, eta apirilean urte arteko gehikuntza handiagoa egon da (+% 11,4; +60.772 bidaiari), ekaina (+% 8,1; +48.991 bidaiari) eta maiatza (+% 7,8; +44.790 bidaiari) atzetik dituela. Portaera on hori nazioarteko hegaldietan zein nazionaletan islatzen da, kasu guztietan bidaiari-kopuruak gora egin du-eta.

Benchmarkina, bidaiariak eta aireportuak

	I. 2024	II. 2024	Δ % urte artekoa	Δ % hiruhileko artekoa	2024ko I. seiuhileko gainean	Δ % urte artekoa
Madril	14.850.086	16.866.720	12,0	13,6	31.716.806	11,3
Bartzelona	11.440.126	14.650.476	11,5	28,1	26.090.602	12,9
Valentzia	2.128.059	2.919.641	9,8	37,2	5.047.700	12,0
Sevilla	2.050.551	2.478.375	18,4	20,9	4.528.926	17,8
Zaragoza	141.944	185.113	4,3	30,4	327.057	-0,6
G-5 multzoa metatuta	--	--	11,2	26,0	--	10,7
BILBO	1.298.636	1.861.280	9,1	43,3	3.159.916	11,8
Gasteiz	44.171	77.754	-17,7	76,0	121.925	-17,0
Donostia	89.130	137.853	4,4	54,7	226.983	4,9
Iruñea	52.411	58.120	22,7	10,9	110.531	21,8
G-3 multzoa metatuta	--	--	3,1	47,2	--	3,3
G-9 multzoa metatuta	--	--	8,3	35,0	--	8,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Bidaiarien mugimenduaren urte arteko dinamismo hori erreferentziazko ia aireportu guztiek partekatzen dute (Gasteizkoak izan ezik: % 17,7). Zehazki, Estatuko aireportuen jardueraren batez besteko hazkundera % 11,2koa da, urte artean, Sevillako (+% 18,4) Madrilgo (+% 12,0), Bartzelonako (+% 11,5) eta Valentiako (+% 9,8) aerodromoetan erregistratutako bultzada nabariari esker. Argi denez, Zaragozako txikiagoa da (+% 4,3).

Portaera positiboa da Donostiako aireportuan ere (+% 4,4), eta, bereziki, Noain-Iruñean (+% 22,7), jarduera-bolumena modu esanguratsuan jaitsi den arren. Kalkuluen arabera, emaitza positibo hori udan zehar indartuko da, turismo-jardueraren dinamismoa eta aireportuek eskainitako helmuga-kopuruaren gorakada²⁸ uztartuz gero.

²⁸ Dinamismo horren pista bat da Espainiako aire-ahalmena, 2024ko uztailan, 2023koa baino % 9,5 handiagoa izan zela (Turismoko Estatu Idazkaritza), eta aurreikuspenen arabera abuztuko proportzio berean gehituko da.

Itsas-garraioa

Urteko bigarren hiruhilekoan, Bilboko portuak kudeatutako salgaien trafikoak urte arteko gehikuntza itzela erregistratu du (+% 9,9), eta 9,6 milioi tonakoa izan da. Horrela, lehenengo hiruhilekoan, portuak 2019ko pandemia aurreko maila berreskuratu zuen (hiruhilekoko batez bestekoa: 8,9 milioi tona), eta, bigarren hiruhileko honetan, 2018an erregistratutako gehieneko bi balioak gainditu dira (9,1 eta 9,0 milioi tona, bigarren eta laugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren).

Bilboko portuak 2018an lortutako mailarik altuenetara iritsi da


Hilabeteko bilakaerak bigarren hiruhilekoko dinamismoa azaleratzen du, apirilean (+% 10,5), maiatzean (+% 15,9) eta, neurri txikiagoan, ekainean (+% 3,7) erregistratutako hazkundeei esker. Bestalde, azpimarratu behar da jardueraren hazkundera solteko gai likidoen jardun egokiaren (+% 13,3, garraiatutako salgai guztien % 62,8) eta solteko gai solidoen (+% 10,1, Bilboko portuko jarduera osoaren % 12,2) hazkunderaren ondorio dela, bai eta, neurri txikiagoan, merkantzia orokorraren (+% 2,2) ondorio ere, hori salgai guztien % 24,7 baita.

Portuak 745 ontzi kudeatu ditu, hau da, duela urtebete baino % 0,5 eta 4 ontzi gehiago. Garraiatutako edukiontziak, berriz, 117.225 izan dira, urte ateko % 11,7ko murrizketa izan delarik eta garraiatzen duten salgaiak % 6,6ko beherakada izan duelarik.

Azkenik, eta laburpen gisa, lehenengo seihilekoaren balantzeak Bilboko portuaren jardueraren urte arteko gorakada berresten du (+% 9,7), guztira 18,1 milioi tona garraiatu baitira (2023an baino 1,6 milioi tona gehiago, garai berean).

Urteko lehenengo seihilekoko jardueraren gorakada % 9,7koa izan da.

Salgaien itsasoko garraioa



Iturria: Estatuko Portuak.

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barneko Produktu Gordina


Bizkaiko ekonomiak hazkunde-profila mantendu du 2024ko lehenengo hiruhilekoan (+% 1,7, urte artean), eta, aldi berean, hobera egin du 2023ko bigarren eta laugarren hiruhilekoetan erregistratutako igoerekin alderatuta (+% 1,4, +% 1,3 y +% 1,6, hurrenez hurren).

Bizkaiko ekonomia % 1,7 hazi da urteko lehenengo hiruhilekoan

Gainera, Bizkaian 499.018 lanpostu sortu dira (lanaldi osoaren baliokidetzan). Horrek esan nahi du 2023ko lehenengo hiruhilekoan baino urte arteko % 1,9 eta 9.248 lanpostu gehiago daudela. Enplegu-zifra hori, lanaldi osoaren baliokide diren milioi erdi inguru lanpostutara iritsi denez, enplegu-zifrarik handiena da 2008ko hirugarren hiruhilekoaz geroztik (502.249 lanpostu).

EAEko 2024ko bigarren hiruhilekoaren aurrerapen-datuek berretsi dute (Bizkaiarentzat adierazgarriak dira) BPGd-a hazi egin dela (+% 0,4 eta +% 1,8 hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan), bai eta enplegua ere (+% 0,6 eta +% 1,8, hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan).

Bizkaiko BGPd



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak, bolumen kateatuko indizean eta 2015eko oinarrian.

Industria

Bizkaiko industria-jardueraren bilakaerak²⁹ dezelerazio-profila adierazten du, bigarren hiruhilekoan % 3,0 egin baitu atzera, eta horrek 2024ko lehenengo sei hilabeteetako balantzea baldintzatzen du (-% 1,3, urtariletik ekainera bitartean). Jardueraren murrizketa ia segmentu guztiekin partekatzen da, urarekin izan ezik (+% 2,6 eta +% 2,0, bigarren hiruhilekoko urte arteko tasan eta lehenengo hiruhilekoko tasa metatuan). Gainera, aipagarria da honako hauek erregistratutako atzerakada: manufaktura-industria (-% 2,3 eta -% 0,5, hurrenez hurren), erauzketa-industriak (-% 26,6 eta -% 22,5) eta energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren segmentua (-% 7,3 eta -% 5,3).

Bizkaiko industria-jarduerak atzera egin du (-% 3,0), eta lehenengo sei hilekoko emaitza kaltetzen du (-% 1,3)

Industria

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	II.2023	III.2023	IV.2023	I.2024	II.2024
Ekoizpen-tasa	0,4	-0,4	0,4	0,6	-3,0
Manufaktura-industria	2,3	3,1	2,7	1,4	-2,3
Erauzketa-industriak	-3,4	3,7	-23,9	-18,2	-26,6
Energia, gasa eta lurruna	-13,7	-19,0	-13,8	-3,3	-7,3
Ura	7,7	-2,9	-3,6	1,4	2,6

Bizkaiko datuak, egutegi-efektua zuzenduta. Erreferentziako aldiko agregazio-indizearen urte arteko aldakuntza.
Iturria: Eustat

Merkatuko zerbitzuak

Urteko lehenengo hiruhilekoan, Bizkaiko zerbitzuen sektorearen salmentek urte arteko % 7,3ko gehikuntza erregistratu zuten (prezio arruntetan), eta hori 2023ko lehenengo hiruhilekotik izandako baliorik handiena izan da³⁰. Bestalde, sektoreko salmenten bilakaera ere, prezioen eragina kenduta (prezio konstanteetan) positiboa da (+% 3,8) eta ia balio bera du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Guztiarekin ere, merkatuko zerbitzuen sektoreari lotutako enplegua % 0,8 hazi da urteko lehenengo hiruhilekoan.

Zerbitzuen sektoreko salmentek hazkunde-bideari eutsi diote

Merkatuko zerbitzuak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	III.2023	IV.2023	I.2024	III.2023	IV.2023	I.2024
Merkatu-zerbitzuen salmentak	5,5	6,9	7,3	4,9	3,4	3,8
Landunen indizea	0,2	-1,0	0,8	--	--	--

Bizkaiko datuak (2015eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (datu gordinak) eta behin-behinekoren ondorioak zuzenduta uneko urterako.
Iturria: Eustat


²⁹ Industria Produzioaren Indizeak (IPI) industria-sektoreko faktoreen kostuko balio erantsi gordinaren bolumenak (ekoizpen-mailak) izandako bilakaera jasotzen du, prezioa kontuan hartu gabe, eta hori industriako prezioen indizearen (IPRI) bidez jasotzen da.

³⁰ Oinarria aldatuta, 2023ko lehenengo hiruhilekoa eskuragarri dagoen hiruhilekoko lehenengo datua da.

Erantsitako grafikoak Bizkaiko merkatuko zerbitzuen salmenta-indizearen ibilbidea jasotzen du (prezio arruntetan³¹) 2021eko emaitzek pandemiaren ondoreak erakusten dituzte. Horrenbestez, jardueraren zati handi bat ez zen 2022ra arte suspertu (urte horrek erregistratu diren urte arteko gehikuntza handienen eta ezohikoen zati handi bat hartzen du). Guztiarekin ere, bazirudien 2023 eta 2024 normaltasun-egoera batean sartuko zirela, baina salbuespenezko espiral inflazionista baten eraginpean egon dira, eta uste baino denbora gehiago darama gutxitzea eta, gainera, inpaktu espezifikoa izan du azpiko osagaian eta zerbitzuei dagokienez.

Ondorioz, 2023ko eta 2024ko salmenten bilakaera prezio altuagoko agertoki batera egokitzeko gaitasunaren isla da, urte arteko aldakuntza-tasa, prezio arruntetan, prezio konstanteen sekuentziarekin berresten baita (+% 6,0, +% 1,5, +% 4,9 eta +% 3,4 eta +% 3,8, hurrenez hurren, 2023ko eta 2024ko lehenengo hiruhilekoen artean).

Merkatuko zerbitzuen salmentak (prezio arruntetan)



Bizkaiko datuak, egutegi-efektua zuzenduta (prezio arruntetan). Uneko urteko behin-behineko datuak. 2015eko oinarria
Iturria: Eustat

³¹ Ez du serie berbera prezio konstanteetan.

Kanpoko merkataritza

Apiriletik maiatzera bitarteko bihilekoan gora egin du lurraldearen kanpoko jarduerak, eta hazkunde-bidera itzuli da 2024ko lehenengo hiruhilekoan erregistratutako murrizketaren ondoren. Ohargarria da esportazioen dinamismoa (+% 18,1 eta +% 16,2, bolumenari eta balioari dagokienez), esportatutako tonaren batez besteko prezioa 1.581 eurokoa baita, inportazioen batez besteko balioa nabarmen gaituz (841 euro), bihileko horretan lurraldearen jarduera inportatzailea hobetu den arren (+% 12,3 eta +% 11,6, bolumenari eta balioari dagokienez).

Kanpoko jarduerak gora egin du apiriletik maiatzera, baina ez du urtearen hasiera ahula konpentsatzen.

Energetikoa ez den jardueraren bilakaerak ñabardura batzuk egin ditu emaitza horietan; izan ere, esportazio ez-energetikoak hazi egin dira balioan (+% 4,6), baina bolumenean behera egin dute (-% 4,8), eta agerian geratu da esportatutako tonaren batez besteko prezio altuagoa (2.407 euro). Inportazioek, berriz, alderantzizko bilakaera izan dute: bolumena hobetu egin da (+% 6,1) eta balioa pixka bat murriztu (-% 0,9). Hala, inportatutako tonaren batez besteko prezioa murriztu egin da (1.555 euro).

Guztiarekin ere, 2024ko lehenengo bost hilabeteetako balantzea urtearen hasiera ahulak (lehenengo hiruhilekoa) baldintzatzen du, ez dena azken bihilekoan erregistratutako gorakadarekin konpentsatu. Zehazkiago, lurraldearen kanpoko jarduera osoari erreparatu, esportazioek atzera egin zuten (-% 3,5 eta -% 4,2, bolumenari eta balioari dagokienez), eta inportazioek, aldiz, profil dinamikoagoa izan zuten (+% 7,7 eta +% 0,5). Balantze hori okerrera doa jarduera ez-energetikoan, esportazioen murrizketa areagotu baita (-% 13,8 y -% 10,0) eta inportazioen emaitza baldintzatu baita (+% 0,6 eta -% 9,9).


Kanpoko merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.

	III.2023	IV.2023	I.2024	II.2024 ¹	Urte arteko Δ (%)	
					I.2024	II.2024 ²
Bolumena (milaka tona)						
Esportazioak, guztira	1.638,8	2.460,0	1.804,5	1.417,4	-15,6	18,1
Esportazio ez-energetikoak	1.021,8	1.238,0	1.031,3	749,3	-19,4	-4,8
Inportazioak, guztira	4.602,3	3.860,9	4.339,7	3.654,0	4,1	12,3
Inportazio ez-energetikoak	1.355,1	1.177,9	1.246,9	998,0	-3,4	6,1
Balioa (milioi euro)						
Esportazioak, guztira	2.740,6	3.295,2	2.870,5	2.241,0	-15,7	16,2
Esportazio ez-energetikoak	2.344,6	2.518,8	2.363,7	1.803,4	-18,6	4,6
Inportazioak, guztira	3.894,2	3.522,7	3.864,7	3.072,0	-6,9	11,6
Inportazio ez-energetikoak	2.070,0	1.948,1	2.068,8	1.552,1	-15,7	-0,9

Bizkaiko datuak. 1. Apiril-maiatzari dagokion behin-behineko datua 2. Aurreko urteko apiril-maiatzaren aldean
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Bestalde, Bizkaiko kanpoko merkataritzaren saldo osoak defizitarioa izaten jarraitzen du apiriletik maiatzera bitarteko bihilekoan (-831 mila euro), baina osagai ez-energetikoan positiboa da (+251,3 mila euro), esportazio ez-energetikoen pisu handiagoa dela-eta. Beste alde batetik, atxikitako grafikoak argi uzten du jarduera ez-energetikoak esportazioen eta inportazioen balioan duen pisu garrantzitsua (% 80,5 eta % 50,5), bi kasuetan bolumenean ekarpena gaituz (% 52,9 eta % 27,3, hurrenez hurren).


Esportazio eta inportazio ez-energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. 2023ko apiril-maiatzeko hilabetei dagokien bigarren hiruhilekoko datuak.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Azkenik, 2023ko laugarren hiruhilekoko gorakada txiki baten ostean, Bizkaiko kanpoko jardueraren pisu ekonomikoak berriz egin du behera 2024ko lehenengo hiruhilekoan, eta, beraz, esportazioen balioa Bizkaiko BPGd-aren % 23,5 da.

Esportazioen ratioa BPGd-ari dagokionez (%)



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoko kontuak (Eustat; oinarria: 2015)

ENPRESA-JARDUERA


Sozietate berriak

Apiriletik ekainera bitartean, Bilbon 221 merkataritza-sozietate berri eratu dira, hau da, urte arteko % 2,8 eta 6 sozietate berri gehiago kopuru absolutuetan.

Eratutako sozietate berrien kopuruak gora egin du

Jarduera-sektoreen arabera, zerbitzuek sozietate berri gehienak izaten jarraitzen dute (190 sozietate, guztizkoaren % 86), eta, gainera, azken urtean hazi diren bakarrak dira (+% 8,6), gainerako sektoreetan erregistratutako jaitsiera konpentsatuz (-% 28,6 eta -% 8,3, eraikuntza eta industrian eta energian). Sozietate berrien kopurua askoz txikiagoa izanda, eraikuntza-sektoreari (20 sozietate; % 9) eta industria eta energiari (11 sozietate; % 5) adskribatutako sozietate berriak atzetik datoz. Jarduera-adarren arabera, sozietate gehien dituztenak jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (32), merkataritza eta konponketak (29) eta ostalaritza (23) dira.

Merkataritzako sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Merkataritzako sozietate berriak

	III.2023	IV.2023	I.2024	II.2024	hiruhileko artean	% Δ urte artean
Sozietate berriak	162	223	231	221	4,3	2,8
Lehenengo sektorea	0	0	0	0	--	--
Industria eta energia	3	17	23	11	-52,2	-8,3
Eraikuntza	12	25	20	20	0,0	-28,6
Zerbitzuak	147	181	188	190	1,1	8,6

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2024ko II. hiruhilekoa)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	32
Merkataritza eta konponketak	29
Ostalaritza	23
Eraikuntza	20
Higiezinaren alorreko jarduerak	19

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

Desegindako sozietateei erreparatu, bigarren hiruhilekoan Bilbok 74 sozietate itxi direla erregistratu du; hots, duela urtebete baino % 2,8 gehiago (2 sozietate gehiago deseginda). Jarduera-adarren arabera, zerbitzuen sektoreak desegite-kopuru handiena du (60), baina duela urtebete baino sozietate gutxiago galdu dituen sektore bakarra da (-% 3,2). Bestalde, eraikuntzaren sektoreak 9 sozietate galdu ditu (urte arteko +% 12,5) eta industriak eta energiak 5 sozietate galdu dituzte (+% 150). Jarduera-adarren arabera, hainbat adarrerako sozietateak galdu dira, hala nola merkataritza eta konponketak (14), jarduerak profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (14) edo eraikuntza (9). Horiek guztiak desegindako sozietateen erdia osatzen dute.

Bigarren hiruhilekoan 74 sozietate desegin dira hiribilduan

Guztiarekin, hiribilduko enpresa-jardueraren saldo garbia positiboa da, sozietate gehiago sortu baitira desegin baino, eta 147 sozietate gehiago daude Bilboko ekoizpen-sarean.

Desegindako sozietateak

	III.2023	IV.2023	I.2024	II.2024	hiruhileko artean	% Δ urte artean
Desegindako sozietateak	48	94	134	74	-44,8	2,8
Lehenengo sektorea	1	0	0	0	--	--
Industria eta energia	2	3	7	5	-28,6	150,0
Eraikuntza	4	15	24	9	-62,5	12,5
Zerbitzuak	41	76	103	60	-41,7	-3,2

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2024ko II. hiruhilekoa)

Merkataritza eta konponketak	14
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	14
Eraikuntza	9
Higiezinaren alorreko jarduerak	8
Finantza eta aseguru alorretako jarduerak	6

Iturria: Merkataritza Erregistroa

II. hiruhilekoa 2024

	Azken datua	Adierazleak Δ Urte artekoa (%)	Aldia
LAN-MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	179,4	10,4	II. hiruh.
Biztanleria landuna (milakotan)**	162,6	8,5	II. hiruh.
Biztanleria langabea (milakotan)**	16,8	32,3	II. hiruh.
Langabezia tasa (%)**	9,35	1,6*	II. hiruh.
Langabe erregistratuak (pertsona kop.)**	20.981	1,6	ekaina
Afiliatuak (kop.)	194.949	5,4	ekaina
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	28.626	-0,1	II. hiruh.
MERKATARITZA			
Afiliatuak	20.512	6,5	ekaina
Kontsumo prezioak (adierazlea)***	116,6	3,5	ekaina
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	570.337	-2,8	II. hiruh.
Bidaariak (kop.)	297.092	-1,6	II. hiruh.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,92	-0,02*	II. hiruh.
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tonatan)	9.603,5	9,9	II. hiruh.
Bidaariak airez garraiatzea	1.861.280	9,1	II. hiruh.
ENPRESA-JARDUERA			
Industria-ekoizpena (indizea)***	347,6	-3,0	II. hiruh.
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	221	2,8	II. hiruh.
Desegindako sozietateak (kop.)	74	2,8	II. hiruh.

* Ehuneko puntuak.

** Bilbon bizi den populazioa.

*** Bizkaiari dagokion adierazlea

KPIren bilakaera, erreferentziatzko aldiari gehitutako indizearen arabera. Oinarritzko urtea (2021).

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.